



CAMPAÑA NAVIDAD

“Salir al encuentro”

23 de DICIEMBRE 2018

ENTRADA

En este domingo cuarto de Adviento ya vislumbramos el final de nuestro camino; nos acercamos a Judá, a sus montañas, con María y, también a nosotros se nos dirá: ¡dichosos porque habéis creído, veréis la fidelidad de Dios!

Hoy la Iglesia través de Cáritas nos invita a entrar en el corazón de las personas que se acercan y nos necesitan. Cuando escuchamos y salimos al encuentro de las personas, brota la presencia y la voz de Dios. Dios está en el rostro de la persona que se acerca a Caritas y nos reclama.

PERDON

Antes de celebrar la Eucaristía de hoy necesitamos atender, de verdad, a la llamada que Dios nos hace a dejar nuestra huella de dignidad, de justicia y de solidaridad en la vida cotidiana.

- Perdona nuestra ceguera y oscuridad ante la vida. Señor ten piedad.

- Perdona nuestra incapacidad de verte en las gentes que nos rodean. Cristo ten piedad.
- Perdona nuestra inconsciencia ante los que viven peor que nosotros. Señor ten piedad

LECTURAS

Mi 5,1-4: De un pequeño pueblo de Judá -Belén- saldrá un jefe que se mostrará grande y, la poderosa Asiria se verá sometida. Como a Dios le gusta, lo pequeño vence a lo grande.

Sal, 79, 2-3.15-19: A la actual situación de amargura, el rostro luminoso de Dios es recordado con esperanza renovada

Hb 10, 5-10: Jesús se ofrece en todo como mediación entre nosotros y Dios, y gracias a su vida, podemos conseguir la reconciliación del género humano con Dios. Esa es su voluntad.

Lc 1, 39-45: La primera reacción de María ante la Anunciación fue levantarse. Es ya una nueva criatura que actúa como portadora de la salvación de Dios.

SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

Uno de los rasgos característicos del amor cristiano es saber acudir junto a quien puede estar necesitando nuestra presencia.

Ese es precisamente el primer gesto de María después de acoger con fe la misión de ser madre del Salvador. Se ponen en camino y marcha aprisa junto a otra mujer que necesita en estos momentos su cercanía, su ayuda. María se ha puesto en camino “aprisa”. No quiere llegar tarde, como pasa casi siempre en la atención a los pobres. La Virgen de

la Visitación, en ese momento decisivo de su vida en que podía haber quedado arrebatada en el misterio, ha hecho opción por los necesitados. No lleva regalos, se entrega a sí misma. Da su tiempo, su amistad, el cuidado, el vigor y el entusiasmo de sus manos jóvenes. La Virgen llega y se queda, “sin prisas”, tres largos meses.

Salir al encuentro pasa inevitablemente por dejar que la realidad de las personas irrumpa en nuestra vida, en la vida de cada persona y en la institución, en cada Caritas diocesana o parroquial.

Se trata de dejar que su realidad nos hable, que nos mire cara a cara, de frente, y nos suscite susurros de novedad, de sorpresa y admiración, porque la realidad de cada persona es sagrada y transformadora en sí misma

Esa realidad personal y única nos debe interpelar y cuestionar lo que hacemos y somos. Sólo entonces, en la medida en que nos dejemos tocar por ella será posible la transformación, primero la nuestra y después la transformación social que perseguimos

María recorre la ruta norte, desde Nazaret, al sur, a Karen y camino hacia el sur se ve a casi todos los hambrientos y humillados de la tierra. Eso es el Sur, los que están viviendo en condiciones humillantes, sin derechos reconocidos, sin condiciones humanas adecuadas.

Hay una manera de amar que debemos recuperar en nuestros días y que consiste en “acompañar a vivir” a quien se encuentra hundido en la soledad, vencido por las circunstancias, bloqueado por la depresión, atrapado por la enfermedad incurable o sencillamente vacío de toda alegría y de toda esperanza de vida.

Para acompañar a vivir hoy, sólo necesitamos ponernos en camino hacia nuestro sur particular. Caritas nos indica la ruta: los parados, los ancianos, los alcohólicos, los toxicómanos, los marginados, los refugiados, las personas mayores en soledad...

El ejemplo de María, nos pide llegar “aprisa” y estar con ellos “sin prisa”. Sin reloj, sin agitación, sin prisa. Nos pide entregar nuestro tiempo, nuestra cercanía, nuestra presencia, y nuestra ayuda económica.

Y es que el que cree en la encarnación de un Dios que ha querido compartir nuestra vida y acompañarnos en nuestra indigencia, ese creyente se siente llamado a vivir hoy de otra manera el mandamiento del amor cristiano. Dios se ha “humanizado”, se ha “hecho hombre”, habita entre nosotros.

Y no se trata de hacer “cosas grandes”. No se trata de pertenecer a muchos grupos. Quizás sencillamente se trate de ofrecer amistad a ese vecino hundido en la soledad y la desconfianza, igual se trata de estar cerca de ese joven que sufre depresión nerviosa, o de tener paciencia con ese anciano que busca ser escuchado por alguien y a quien hay que repetir muchas veces las mismas cosas sin perder la paciencia. Quizás se trate de estar junto a esos padres que tienen a su hijo en la cárcel, o de alegrar el rostro de ese niño solitario marcado por la separación de sus padres.

ORACION DE LOS FIELES

Junto con María, vamos a proclamar las grandezas de Dios, y por su intercesión ponemos en sus manos nuestras súplicas, con la seguridad de ser escuchados.

1. Señor Jesús, ven a fortalecer a la Iglesia en su unidad y en su misión. Concédete ser para todos sacramento de comunión *Roguemos al Señor.*
2. Señor Jesús, ven a consolar a todas las personas que se sienten solas en lo más profundo de sus corazones. *Roguemos al Señor.*

3. Señor Jesús, ven a sanar a nuestros enfermos, dales voluntad de lucha y muéstrales tu cercanía. *Roguemos al Señor.*
4. Señor Jesús, ven a donarnos los dones del consuelo, de la sanación, de la paz y el perdón. *Roguemos al Señor.*


Recibe nuestro agradecimiento Señor, por la generosidad que has tenido mandando al mundo a tu propio Hijo para salvarnos, que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo, por los siglos de los siglos.

COLECTA

La colecta de este día de Adviento está destinada a la Cáritas de la Parroquia, para que podamos disponer de los fondos necesarios para ayudar a las personas y familias más necesitadas en nuestro entorno.

LA PAZ

El mayor pecado de la tierra es la división y el enfrentamiento entre los seres humanos. La mayor desgracia es el olvido y la indiferencia ante el drama de media humanidad que malvive en la miseria. No hay paz si no hay justicia y respeto a los derechos humanos de todos. Cada Navidad volvemos a escuchar el mensaje de paz que nos viene de Dios: Gloria a Dios en las alturas y paz a las gentes de buena voluntad. Démonos la paz y llevémosla a nuestras casas y calles.



GABONETAKO KANPAINA

“Besteekin elkartu”

2018ko ABENDUAK 23a

SARRERA

Itxaropena otoitz bihurtzen da Abendualdiko laugarren igande honetan: “isur Jauna zuere zuzentasuna, erne dadila gugan salbamena, jaiο bedi gure artean justizia”.

Gaurko CARITASen lema **besteekin elkartzea** da, hurbiltzen zaizkigun eta behar gaituzten pertsonen bihotzean sartzea. Pertsonak entzutean, eta besteekin elkartzera irteten garenean, Jainkoaren presentzia eta ahotsa azaleratzen dira. Horrela gerta dakigula Eguberri hauetan ere.

BARKAMENA

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Andre Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

- Jesus Jauna, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, bekatarien artera etorri zinen Daviden Seme: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

IRAKURKETAK

Mi 5,2-5a: Judeako herri txiki batetik, Betleem-etik, buruzagi handi bat irten eta azpiratuta gertatuko zen Asiria boteretsua. Jaunari gustatzen zaion bezala, mendean hartzen du txikiak handia.

Sal, 79, 2-3.15-19: Egungo etsipen-egoera honetan, itxaropen berrituarekin goratzen dugu Jaunaren aurpegi argia.

Hb 10, 5-10: Jesusek dena eskaintzen du gure eta Jaunaren arteko bitartekariarena eginez, eta haren bizitzari esker, lortu du gizakia Jaunarekin baketzea. Horixe da haren borondatea.

Lc 1, 39-45: Deikundearen aurrean lehenik altxatu egin zen Maria. Jaunaren salbazioaren eramaile gisa jarduten duen beste izaki bat da dagoeneko.

HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

Kristau-maitasunaren berariazko ezaugarrietako bat da geure presentziaren premia izan dezaketenen albora joaten jakitea. Eta horixe bera da, Salbatzailearen ama izateko zeregina fede osoz bere gain hartu ostean, Mariak egindako aurreneko keinua. Bidean jarri eta

bizkor doa une horretan haren hurbiltasuna eta laguntza behar dituen beste emakume baten ondoan.

Maria "berehala" irten da bidera. Ez du, txiroekiko arretarekin ia beti gertatzen den bezala, berandu iritsi nahi. Ez du oparirik aldean, bera da opari. Bere denbora, adiskidetasuna, zaintza eta indarra eskaintzen ditu, bere esku gazteen gogo bizia. Ama Birjina iritsi eta bertan geratzen da, "presarik gabe", hiru hilabete luzez.

Besteekin elkartzean, ezinbestekoa da, bestearen eta besteen errealitateei geure bizitzan sartzen uztea, pertsona bakoitzaren bizitzan eta erakundeetan bertan, Elizbarruti edo Parrokia bakoitzeko Caritasen-eragina izan dezan uztea.

Besteen errealitateek hitz egin diezaguten uztea da, aurrez aurre begietara begira diezaguten, eta nobedade, sorpresa eta liluraz beteriko xuxurlak belarrietara esan diezazkiguten; pertsona bakoitzaren errealitatea sakratua eta eraldatzailea delako.

Errealitate pertsonal eta parerik gabeko hori geuregan sartu behar da, eta egiten dugun eta garen hori zalantzan jarri eta aztertzea eragin behar digu. Errealitate horrek ukitzen gaituenean, orduan bakarrik izango da posible eraldaketa; gurea lehendabizi eta gizartearena ondoren. Horrela bakarrik lortuko dugu karitate eta gizarte-ekintza eredu honetan lortu nahi dugun eraldaketa soziala.

Mariak iparraldeko bidea egingo du, Nazaretetik hegoaldera, Karenera. Hegoaldera bidean, lurreko ia goseti eta zapaldu guztiak ikusten ditu.

Gaur egun berreskuratu beharreko maitatzeko modu bat dago jokoan, bakardadean hondoratuta bizi denari, zirkunstantziek gaindituta dagoenari, depresioak jota dagoenari, gaixotasun sendaezin batek harrapatuta dagoenari edo, besterik gabe, bizitzeko itxaropenik eta pozik ez duenari "bizitzen laguntzean" datzana.

Bizitzen laguntzeko, gure hegoaldera bidean jarri besterik ez dugu behar. Cáritasek adierazten digu bidea: langabeak, adintsuak,

alkoholikoak, toxikomanoak, baztertuak, errefuxiatuak, bakardadean bizi diren adinekoak...

Gaurko ebanjelioak, Mariaren adibideak, “berehala” iristeko eta haiekin “presarik gabe” egoteko eskatzen digu; zeinen zaila erlojurik gabe, asaldurarik gabe, presarik gabe! Gure denbora ematea eskatzen digu, gure hurbiltasuna eta presentzia bezala, eta besterik ezin egin badezakegu, gure laguntza ekonomikoa ematea.

Izan ere, gure bitzta partekatu eta gure pobrezian lagundu nahi izan duen Jaunaren gizakundean sinesten duen fededun horrek, egun beste modu batean bizi behar du kristau-maitasunaren agindua.

Kontua ez da “gauza potoloak” egitea. Kontua ez da talde askotako kidea izatea. Agian, besterik gabe, adiskidetasuna eskaini behar zaio bakardadean eta konfiantza ezan murgilduta bizi den auzoari, beharbada nerbio-depresioak jota dagoen gazte horren ondoan egon behar da, apika pazientzia eduki behar da beste norbaitek entzutea bila duen eta egonarrria galdu gabe gauza berak behin eta berriz errepikatu behar zaizkion zaharrarekin. Akaso seme-alaba espetxean duten gurasoen ondoan egon behar da, edo gurasoen banatzeak kaltetutako haur bakartiaren aurpegia alaitu beharra dago.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun

1. Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko *Eska diezaigun Jaunari.*
2. Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bitzta osoa argitzen eta alaitzen duen argi

iraunkor eta eder bezala baizik. Egigun otoitz. *Eska diezaiogun Jaunari.*

3. Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. *Eska diezaiogun Jaunari.*
4. Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberrietako festak neurritsu antolatzerakoan.. *Eska diezaiogun Jaunari.*

Jainko gure Jauna, Maria, Israelgo alaba apala, aukeratu zenuen gure artean betiko geratzeko bide; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure nahia onartuz bizitzea, promesa guztiak betetzera mundura etorri zen Zure Semea bezala esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

DIRU-BILKETA

Abendualdi-Eguberrietako egun honetako diru-bilketa Parrokiako Cáritasentzat izango da, geure ingurunean premia handienak dituzten pertsoneri eta familiei laguntzeko beharrezkoak diren funtsak bildu nahi baititugu.

BAKEA

Gizakien arteko banaketa eta gatazka da Lurreko bekaturik handiena. Nahigaberik handiena da premia gorrian bizi direnen drama ahaztea eta horren aurrean axolagabe agertzea. Ez dago bakerik, justiziarik gabe. Ez dago bakerik pertsona guztion giza eskubideak errespetatzen ez badira. Eguberrietan, Jainkoaren bake-mezua entzungo dugu berriro: Aintza zeruan Jaunari eta bakea lurrean borondate oneko jendeei. Eman bakea elkarri eta eraman dezagun bakea geure etxeetara eta kaleetara.